

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIOA KANALAK

Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Hasteko kontuan hartu behar da, gu enpresa txiki bat garela eta orain hasi garela, horregatik hiriko enpresa bat gara eta ospea ez dugu. Beraz lehenengo gauza egingo duguna hiriko udalari mailegu bat eskatzea izango da proiektuarekin hasteko, gero bueltatuko duguna. Hori lortzean hirian ospe gehiago duten enpresa batzuekin eta guk behar ditugun baliabideak dituzten enpresekin kontaktuan jarriko gara proiektuarekin hasteko eta gure enpresa aurrera ateratzeko. Horrez gain, beste enpresa batzuekin biltzean gure enpresa ospe gehiago izango du hirian eta horrek abaintailak suposatuko du proiektua ateratzean.

Gure egitasmoa hirian hasiko da eta gutxinaka-gutxianaka Euskal- Herri osotik zabaltzean nahiko genuke, horretarako beste enpresa batekin harremanetan jarriko gara gure produktuak bezeroei banatzeko. Guk, ondasuna produzitzen duen enpresak, mugikor fundak banatzen dizkigutenean, jendeak mugikor funda disponibleak aukeratuko dituzte. Nahiz eta mugikor zehatz batzuentzat fundak sortu salbuespenak egon daitezke. Bezeroak gurekin kontaktuan jarri behar dira bere mugikorra esateko eta funda eskatzeko. Behin hori jakinda, zerbitzua eskaintzen duen enpresa batekin kontaktuan jarriko gara, haiek erosketa bana dezaten. Beraz, bitartekari bat edukiko dugu soilik.

Gure proiektua bezeroei heltzeko erabiliko dugun kanala online denda bat izango da. Han bezeroak informazio guztia aurkituko dute eta gurekin hortik kontaktuan jarri daiteke. Postaz bidez egingo dugu funden banaketa eta bezeroenganako bidalketa, zerbitzua eskaintzen duen enpresa batek egingo du.